

Oheen aldeko Osakidetzako taldeak..... Udalaren Osoko Bilkuraren onarpenerako aurkezten duen mozioa.

BUSTURIALDEAN BENETAKO OSPITALE BATEN ALDE

Gureak historikoki osasun arloan diskriminatutako eskualdeak izan dira. Horretaz konturatzeko ez dago Erreferentziazko Ospitaleetara arteko distantziak ikustea baino. Gipuzkoan eskualde-ospitaleen aldeko politika jarraitu zen bitartean, Bizkaian makrospitaleen aldeko apustua egin zen, Busturialdea eta Lea-Artibai kalitatezko Osasungintza zirkuitutik hamarkada luzez bazterturik utziz. Hori konpontzera omen zetorren Busturialdeako Ospitalea, hain zuzen ere.

Ospitale horrek bi inaugurazio izan ditu azken urtean, baina biztanleriaren osasun asistentziak hobetu barik jarraitzen du orain arte. Izan ere, eraikin politak egitea baino zerbait gehiago da osasun asistentzia, eta, porlanean ez ezik, pertsonengan eta zerbitzuetan inbertitzea eskatzen du. Ez kasualitatez, analisietako muestrak Galdakaora taxis eramatea bezalako kasuak ezagutu ditugu azken aldian, Ospitalearen beharrezko baliabide faltagatik.

Gauzak horrela, zentro honen ekipamendua serioki har dadin nahi duKO UDALAK, MOZIO HONEKIN BAT EGINEZ, bai giza baliabide zein baliabide materialei dagokienez. Horregaitik, Osakidetzari eta Eusko jaurlaritzako Osasun Sailari eskatzen die, lehen bait lehen, hurrengoak martxan jarri ditzatela:

- * Bere garaian Osasun Sailak hitzemandako ospitalizaziorako oheak jartzea, zentro horri benetako ospitale izaera emanez, oherik gabeko ospitale bat ez baita ospitale bat.
- * Traumatologia, Kirurgia Orokor, Pediatria eta Erradiologia mediku eta Laborategiko Teknikari espezialistak 24 orduz egotea.
- * Kirofanoak bereala martxan jarri ditzatela, larrialdietako kirofanoa barne.
- * Euskararen erabilera ziurtatu dadila zerbitzu guztietan.
- * Eskanerrari (TAC) etekin osoa ateratzea, gaur egun % 75ra baino ez baitago martxan (goizez eta ez egun guztietan).

* Historia klinikoak berehala eta behin betiko digitalizatzeko aterabide sinesgarri bat martxan jartzea.

* Administraziooko pertsonal nahikoa jartzea, telefono lineen gaur egungo kolapsoa ekiditeko.

Finean, eskualde-ospitale publiko bat da Udalak nahi duena, aurrekontu propioa daukana, hau da, zentrotik bertatik kudeatutako giza baliabide zein baliabide material nahikoa dituena.

Zerbitzu hauek martxan jartzeak arreta ospitalarioa hurbilduko lieke biztanleei eta, gainera, zonaldea ekonomikoki eraberritu dezaketen inbertsioak ere badira, ehunka lanpostu sor ditzaketenak, zuzenak zein zeharkakoak.

Moción que presenta Oheen aldeko Osakidetzako taldea para su aprobación por el Pleno del Ayuntamiento de.....

EN PRO DE UN VERDADERO HOSPITAL EN BUSTURIALDEA

Nuestras comarcas han sido históricamente discriminadas en el ámbito de la salud. No hay más que ver las distancias existentes a los Hospitales de Referencia para darse cuenta de ello. Mientras que en Gipuzkoa se siguió una política a favor de la implantación de hospitales comarcales en Bizkaia se optó por una política que priorizaba los macro hospitales, dejando excluidas durante decenios a Busturialdea y Lea-Artibai del circuito de calidad sanitaria. Se suponía que el Hospital de Busturialdea venía, precisamente, a revertir esa situación.

Este hospital ha tenido dos inauguraciones en el último año, pese a lo cual la asistencia sanitaria de la población sigue sin mejorar. Y es que, la asistencia sanitaria es algo más que construir bonitos edificios, ya que la misma exige invertir en personas y servicios más allá de invertir en cemento. No en vano, en los últimos tiempos hemos conocido casos como el de llevar muestras en taxi a Galdakao para su análisis, debido a la falta de recursos del Hospital.

Así las cosas, el AYUNTAMIENTO DE....., haciendo suya la presente moción, desea que se tome con la debida seriedad la necesaria dotación de recursos tanto personales como materiales de este centro. Por lo expuesto, solicita tanto a Osakidetza como al Departamento de Sanidad que pongan en marcha, cuanto antes, los siguientes:

- * Que se pongan las camas de hospitalización a las que el Departamento de Sanidad se comprometió en su día, las cuales darán a este centro su verdadera condición de hospital, ya que un hospital sin camas no es un hospital.
- * Que haya médicos especialistas de Traumatología, Cirugía General, Pediatría y Radiología, así como Técnico Especialista de Laboratorio, las 24 horas del día.
- * Que los quirófanos se pongan en marcha inmediatamente, incluido un quirófano de urgencias.
- * Que se garantice el uso del Euskara en todos los servicios.

- * Pleno rendimiento de Escáner (TAC), dado que hoy en día solo funciona al % 75 (solo de mañana y no todos los días).
- * Un programa rápido y definitivo de digitalización completa de las historias clínicas.
- * Una dotación suficiente de personal de administración que impida el colapso de las líneas telefónicas.

Al fin y al cabo, lo que desea el Ayuntamiento de..... es un hospital comarcal público, que tenga presupuesto propio, esto es, que cuente con los recursos humanos y materiales suficientes gestionados desde el propio Centro.

La puesta en marcha de estos servicios, además de acercar la asistencia sanitaria hospitalaria a la población, sería una inversión que podría reactivar económicamente la zona, creando cientos de puestos de trabajo, tanto directos como indirectos.